



Mercedes-Benz

Proiektu zbk.: 2016/5

Enpresa: **MERCEDES BENZ**

Jazarpenari aurea hartzeko eta esku hartzeko protokoloa – zuzendaritzaren eta ordezkari sozialen baterako partaidetzaz

Helburua eta aurkezpena: laneko harreman osasuntsuak eta gehiegi-keriarik gabeak sustatzea eta horiei buruz sentsibilizatzea du helburu; horretarako, enpresako beharrezko eragile guztien artean “lankidetza eta partaidetza bidezko” prozedura konfiguratu nahi da, eta, horren bidez, aurkeztutako salaketak errazago ebaluatu eta ebatzi. Horren helburua da jazarpen-salaketei aurea hartzea eta horrelakoak daudenean bitartekaritza-lana egin eta konpontzea.

Egindako hobekuntzak: langileek jazarpen-protokoloa ezagutzea, eta ordezkari sozialak eta zuzendaritzak partekatutako instrukzioa eta ebazpena; horri esker, eragozpen txikiagoak daude balizko salaketa bat jartzeko, bien partaidetzak giro segurua eskaintzeaz gain, berme



orokorrak ere ematen baititu eta arlo honetako arazo oro azaleratzea sustatzen baitu. Partaidetza eta erantzukidetasuna prozeduran, jardueran eta ebazpenean zilegitasuna eskaintzeko, inpartzialitateei edo interesei leku gutxi utziz, eta kasu bakoitzerako irtenbide integratua eta berariazkoa baliozkotuz.

Bereizgarriak: salaketak egonez gero, batzordearen bi alderdi azpimarratzen ditu protokoloak, “prebentzioa” eta “ekintza zuzena”. Bietan zuzendaritzaren eta ordezkari sozialen arteko partaidetzak konpromiso eta babes handia emango du. Prebentzioaren arloan, errespetuan oinarritutako lan-ingurunea sustatzea izango da zeregina. Ekintzaren arloan dagokionez, bi mailatatik begiratuko zaio, salaketaren larritasunaren arabera; bitartekaritza-fasean irtenbide negoziatua lortzen saiatuko da, etorkizunean arazoa areagotu ez dadin; eta konpontzeko fasean, horri buruzko jarduerak eta gomendioak proposatuko dira.

Prozesuaren deskribapena: aurkeztutako salaketaren batengatik ikerketa-prozedura irekitzean, berdintasun-arduradunak eta ordezkaritza sozialaren batzordeko kideren batek hartuko dute parte egoki iritzitako elkarrizketa eta izapide guztietan. Ondoren, horri buruzko txosten bat egingo da eta txosten horretan sartuko dira: egindako ikerketen garapena eta elkarrizketak; ondorioak eta gogoeta orokorrak, eta jarduerak eta gomendioak. Horiek guztiak zuzendaritzak baloratuko ditu, ondoren burutu ahal izateko.

Lortutako emaitzak: maila guztietan kontzientziatu dira errespetuzko eta jazarpen zantzurik gabeko laneko harremanen beharraz. Salaketak berdintasun-batzordera bideratzen dira, eta proposatutako ebazpenei edo irtenbideei buruzko onespene orokorra dago; eta hori guztia, zuzendaritzaren eta arlo sozialaren arteko partaidetzak eskaintzen duen konfiantzak erabateko bermea eskaintzen duelako da.